En la Casa Consistorial del Ayuntamiento del Valle de Erro, siendo las 11,30 horas del día 29 de enero de 2015, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión extraordinaria con la asistencia de los Sres/as. Concejales/as D. Jesús Esteban Juanarena Apesteguia, Dña. Miren Orreaga Urtasun Alegre, D. Álvaro Villanueva Azcarate y Dña. María Roncesvalles Martínez Sagardia, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. Enrique Garrada Erro, asistiendo como Secretaria la de la Corporación Dª. Marisol Ezcurra Irure.

**PRIMERO.- ACUERDO DE LA INTEGRACION DEL AYUNTAMIENTO DE ERROIBAR-VALLE DE ERRO EN LA FUTURA AGRUPACION DE SERVICIOS ADMINISTRATIVOS ORREAGA/RONCESVALLES, AURITZ/BURGUETE Y Y ERROIBAR/VALLE DE ERRO**.

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda, que expone en primero lugar y en relación con el asunto a tratar, que la actual Agrupación de Ayuntamientos de Orreaga/Roncesvalles, Auritz/Burguete, Erroibar/Valle de Erro para servirse de un Secretario cumplió el pasado lunes, 26 de enero, 75 años de funcionamiento. Si bien es hora de que mirando a la futura organización municipal, al posible nuevo mapa local así como a la realidad del actual funcionamiento de los Ayuntamientos mencionados, dicha agrupación quede absorbida por una más amplia que recoja no solo la figura del secretario sino de los servicios administrativos en su conjunto. Desde hace tiempo los tres Ayuntamientos están trabajando en esta dirección y recuerda que ya en las sesiones de 31 de octubre de 2012 y 25 de febrero de 2014 se acuerda y se traslada tanto al Departamento de Administración Local como al Parlamento la iniciativa de crear una nueva agrupación que integre la existente y acoja al resto de personal administrativo contratado por cada uno de los ayuntamientos que en este caso coincide que es el mismo personal, dos administrativas y una técnico de euskera. Así mismo informa que con la entrada en vigor de la Ley Foral 23/2014 de 2 de diciembre que modifica, entre otros, el apartado 3 del artículo 46 de la Ley Foral 6/1190 de 2 de julio de Administración Local, por el que si se cumple los requisitos establecidos en el mismo, se permite la constitución con carácter voluntario de agrupaciones de servicios administrativos, es posible llevar a efecto la intención de los tres Ayuntamiento de crear la mencionada Agrupación.

Por lo expuesto y entendiendo que los Ayuntamientos de la actual Agrupación y en concreto el Ayuntamiento de Erroibar/Valle de Erro cumple con los requisitos exigidos en el artículo 46 anteriormente mencionado, propone tal y como así lo requiere el apartado 3 d, del artículo 46 de la Ley Foral 6/90 adoptar el acuerdo de que el Ayuntamiento de Erroibar/Valle de Erro, se integre en la Agrupación de Servicios Administrativos Orreaga/Roncesvalles, Auritz/Burguete, Erroibar/Valle de Erro constituida al efecto.

Se acuerda por unanimidad:

1º.- Que la actual Agrupación de Ayuntamientos de Orreaga/Roncesvalles, Auritz/Burguete, Erroibar/Valle de Erro para servirse de un Secretario, de la

que forma parte este Ayuntamiento de Erroibar/Valle de Erro, se integre en la futura Agrupación de Servicios Administrativos de Orreaga/Roncesvalles, Auritz/Burguete, Erroibar/Valle de Erro.
2º.- Dar traslado del presente acuerdo a los Ayuntamientos de Auritz/Burguete y Orreaga/Roncesvalles, así como a la Agrupación de Ayuntamientos de Orreaga/Roncesvalles, Auritz/Burguete, Erroibar/Valle de Erro para servirse de un Secretario.
3º.- Dar traslado del acuerdo adoptado al Departamento de Administración Local para su conocimiento y efectos oportunos.

**SEGUNDO.- APROBACION DEL BORRADOR DE ESTATUTOS DE LA AGRUPACION DE SERVICIOS ADMINISTRATIVOS ORREAGA/RONCESVALLES, AURITZ/BURGUETE Y ERROIBAR/VALLE DE ERRO**
Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda, que con el fin de ir trabajando en la constitución de la Agrupación de Servicios Administrativos Orreaga/Roncesvalles, Auritz/Burguete, Erroibar/Valle de Erro, se ha preparado de común acuerdo con los alcaldes de los Ayuntamientos de Auritz/Burguete y Orreaga/Roncesvalles, un borrador de estatutos que sirva como base de trabajo para la aprobación finalmente de los estatutos que rijan y regulen la futura Agrupación de servicios administrativos.
Se acuerda por unanimidad:
1º.- Aprobar el borrador de estatutos y trabajar con él a fin de que con la aportación tanto de los miembros de esta Corporación como del resto de concejales de los Ayuntamientos de Auritz/Burguete y Orreaga/Roncesvalles, se aprueben finalmente los estatutos que regulen la mencionada Agrupación.
2º.- Solicitar una reunión con el Departamento de Administración Local y trasladar al mismo el borrador de estatutos para su visto bueno.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 12,30 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2015eko urtarrilaren 29an, 11:30ean, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian bilkura berezia egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: Jesús Esteban Juanarena Apesteguia, Miren Orreaga Urtasun Alegre, Álvaro Villanueva Azcarate eta María Roncesvalles Martínez Sagardia, bilkuraburu alkatea, Enrique Garrada Erro, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

**LEHENENGOA.- ERROIBARKO UDALAREN ERABAKIA, ORREAGA, AURITZ ETA ERROIBARKO UDALEK OSATUKO DUTEN ADMINISTRAZIO ZERBITZUEN BATASUNEAN SARTZEKO.**
Alkateak, Garralda jk. hitza hartu du eta azaldu du lehenengo eta behin, gaur egun Orreaga, Auritz eta Erroibarko Udalek idazkari batez baliatzeko duten

Batasunak 75 urte daramazkiela martxan. Hortaz, beharrezko da etorkizunean egingo den udal antolaketa, balizko tokiko mapa berria eta aipatutako Udalek gaur egun duten funtzionamenduari begira, batasun hori handiago izango den beste baten barne sartzea, idazkariaz gain administrazio zerbitzu guztiak hartuko dituena. Badira urteak hiru Udalak horri begira ari direla lanean eta 2012ko urriaren 31ko eta 2014ko otsailaren 25eko bilkuretan erabaki zela batasun berria osatzea, oraingoa haren barnean sartuz, udal bakoitzak kontratatuturik duen gainontzeko administrazio langileak, bi administrariak eta euskara teknikari bat, horretan sartuz, langile horiek berberak baitira hiru udaletan eta horren berri Toki Administrazioko Departamentuari eta Legebiltzarrari eman zitzaion. Modu berean, jakinarazi du abenduaren 2ko 23/2014 Foru Legea indarrean sartu zenetik, Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 46. artikuluaren 3 idatzi-zatia aldatzen da, eta, hortaz, horretan ezarritako baldintzak betez gero, administrazio zerbitzuen batasunak borondatez osa daitezke, eta orain, hiru Udalek Batasun hori osatzeko duten asmoa gauzatu daiteke.
Hortaz, hiru Udalek zein oraingo Batasunak, eta, zehazki Erroibarko Udalak, lehen aipatutako 46. artikuluak dioen baldintzak betetzen dituztela kontuan hartuz, proposatu du 6/90 Foru Legearen 46. artikuluaren 3d idatzi-zatiak dioena betetzeko, Erroibarko Udala Orreaga, Auritz eta Erroibarko Udalek osatutako Administrazio Zerbitzuen Batasunean sartzea.
Aho batez erabaki da:
1.- Gaur egun Orreaga, Auritz eta Erroibarko Udalek idazkari batez baliatzeko daukaten Batasuna, Erroibarko Udala barne dagoela, etorkizunean gauzatuko den Orreaga, Auritz eta Erroibarko Udalen administrazio Zerbitzuen Batasunean sartzea.
2.- Erabakia Orreaga eta Aurizko Udalei jakinaraztea, baita Orreaga, Auritz eta Erroibarko Udalek idazkari batez baliatzeko osatutako Batasunari.
3.- Hartutako erabakia Tokiko Administrazioko Departamentuari igortzea, jakinaren gainean egon dadin eta haren ondorioetarako.

**BIGARREN.- ORREAGA, AURITZ ETA ERROIBAKO ADMINISTRAZIO ZERBITZUEN BATASUNEKO ESTATUTUEN ZIRRIBORROAREN ONESPENA.**
Garralda jk., alkateak, hitza hartu du eta esan du Orreaga, Auritz eta Erroibarko Administrazio Zerbitzuen Batasuna gauzatzeko, Orreaga eta Aurizko Udaletako alkateekin batera estatutuen zirriborroa prestatzen ari dela, eta horiek direla Administrazio Zerbitzuen Batasuna arautuko duten behin betiko estatutuen oinarria.
Aho batez erabaki da:
1.- Estatutuen zirriborroa onartzea eta horiek landuz joatea, udal honetako kideen zein Orreaga eta Aurizko udaletako kideen ekarpenak kontuan hartuz, Batasuna arautuko duten estatutuak prestatu eta behin betiko onesteko.
2.- Tokiko Administrazioko Departamentuari bilera eskatzea estatutuen zirriborroa aurkeztu eta onespena eman dezaten.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 12,30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.